

## Txistulari Bandak eta Betiola-Elizatxo txarangak plaza betean eman zieten San Joanei hasiera

■ Jende asko bildu zen plazan aurten San Joanen hasiera ikusi eta bizitzera ■ Omenduek Jose Antonio Insausti Txobito zena eta "falta diren guztiak" izan zituzten gogoan.

AURTENGO San Joanak atzo hasi ziren ofizialki, Txistulari Bandak eta Betiola-Elizatxo txarangak txupinazoa botata, jendearen txalo eta oihu artean. Jai Batzordeak bi talde hauek omendu nahi izan ditu aurten San Joanen hasierako ekitaldian, urte luzetan herrian egindako lanagatik. 11:15etan omenaldia egin zieten Gudarien plazan eta 12:00etan festei hasiera eman zieten omenduek, Udaletxeko balkoitik. Omenduen izenean Patxi Apezetxea, Txistulari Bandako kideak hitz egin zuen. Apezetxeak eskerrak eman zizkien hernaniarrei omenaldiagatik eta bai Txistulari Bandak eta bai Betiola txarangak orain arteko lanean segiko dutela gaineratu zuen. Omenduek oroimenean eduki nahi izan zuten Jose Antonio Insausti Txobito zena eta baita "arrazoi bat edo bestegatik herrian falta diren guztiak" ere. Txistulari Bandak eta Betiola-Elizatxok jaiak ondo pasatzeko opa zien hernaniarrei, txupinazo ekitaldi bukaeran.

### Festa giroa asteburuan

Festak ofizialki atzo hasi ziren, baina, jende asko ibili da asteburuan herrian, ostirala, larunbata eta igan-dean. Aurtengo San Joanak atzo hasi eta datorren ostiralean bukatuko dira berez, baina aurten 7 eguneko festa izango da askorentzat. □



Goian Jose Mari Ezeiza etxefuegoa pizten eta behean omendutako bi taldeetako kideak.

### Musika Bandak eta Txistulari Bandak kontzertua

HERNANIKO Musika Bandak eta Txistulari Bandak kontzertuak emango dituzte gaur, Udaletxeko arkipeetan. Txistulari Bandak 12:00etan emango du kontzertua eta bederatzi obra joko dituzte. Inguruko txistulariek Metal Boskoteak eta Kriskitiñako dantzariekin ere hartuko dute parte. Hernaniko Musika Bandak, berriaz, segidan joko du, 13:00etan, eta lau obra joko dituzte. □

### Bertsolari jaialdia Baserritar egunaren bezperan aurten

BASERRITAR egunez egiten den bertsolari jaialdia bezperan egingo da aurten, eta orain artean ez bezala 6 bertsolari izango ditu: Xebastian Lizaso, Joxe Agirre, Xabier Legarreta, Aritz Zerain, Iñaki Zelaia eta Unai Iturriaga. Jaialdia 19:00etan izango da, Gudarien plazan edo Tilosetan. □

### Preso eta errefuxiatuei omenaldia, gaur arratsaldean Gudarien plazan

PRESO eta errefuxiatuei omenaldia egiten zaie urtero Hernanin ekainaren 24an, San Joan egunarekin. Aurten iaz baino ordu bete lehenago hasiko da omenaldia: gaur arratsaldeko 19:00etan, Gudarien Plazan. □

## EGITARAUA

### EKAINAK 24, ASTEARTEA

- 08:00 Gosari Herrikoia Plaza Berrian. (Txosna Batzordeak antolatua tabernarien laguntzarekin)
- 09:00 Diana, *Mendirik Mendi* Musika eta Txistulari bandak
- 09:00 Amuarrain harrapaketarako haurren XIII. Txapelketa. *Juan Antonio Esteban-en* XII. oroitzapenean.
- 11:00 Meza Nagusia, Zaindariaren ohorez, parrokan.
- 12:00 Haurren danborrada. Santa Barbara eta Etxeberri elkarrekin.
- 12:00 Txistulari Bandaren kontzertua, Arkipeetan.
- 13:00 Musika Bandaren kontzertua, Arkipeetan.
- 17:30 Dantza Askatu Txapelketa, Gudarien plazan (Sanduisterrin, euria bada).
- 18:00 Haurrentzako emanaldia: *Klaketa*, Hortzmuga taldearekin, Biteri plazan.
- 18:00 Basoko Taloak. Egunkariaren alde, Plaza Berrian. (Txosna Batzordeak antolatua tabernarien laguntzarekin)
- 19:00 Preso eta errefuxiatuei omenaldia, Gudarien plazan.
- 20:00 Kale animazioa txosna gunean.
- 22:45 Su Artifizialak.
- 23:00 Dantzaldia, *Makala DJ*, eta *Txeese-rekin*, Molotoff Irratiaren txosnan, Dub Zientzilari zorora eta Disco Funk estiloetan.
- 23:00 Txatunga Benbe taldearen emanaldia.
- 23:00 Rock kontzertua R, Mitzura eta Aina taldeekin, Tilosetan.
- 23:30 Kalejira Xalaparta txarangarekin.
- 24:00 Kalejira eta herri dantzak dultzainero-kin. Amaitzeko, *Larraintz dantza* Plaza Berrian.

### Jubilatu Etxean ekitaldiak 26 goizean

SAN JOANAK direla eta, Goiz Eguzki Jubilatu Etxeak zenbait ekitaldi antolatu ditu datorren ostegunerako. Goizeko 10:00etan, txapelketak izango dira: bola, toka, igela eta botea. 11:00etan Jubilatu Etxeko gimnasia izango da, kanpoko plazan. Eguerdiko 12:00etan, berriz, txapelketetako sariak banatuko dira, eta ondorenean omenaldia egingo zaie Jubilatu Etxeko lehendakari izan direnei eta beren senideei, eta gero luntxa emango zaie. □



## Hernaniko Udala

San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu  
hernaniar guztioi. Ondo pasa.

**GORA SAN JOANAK!!**

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarteak. Erredakzioa, argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. ☎ 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.



Hernaniko hiru bikoteak San Joan iragarpen kontzertuan dantzan.

## Dantza Suelto Txapelketa gaur Plazan

MAILARIK altueneko dantza suelto txapelketa jokatuko da gaur Hernanin. Puri purian dauden herriko 3 bikoteak hartuko dute parte: Aitor eta Amaia Parrondo, Xabier Segura eta Lierni Martiarena, eta Ekain Sardon eta Arantxa Ma-

rin. Hiru bikoteak izugarrizko mailan aritu berri dira Euskal Herriko Txapelketan. Hauez gain, beste 12 bikote ere izango dira, 2 bizkatarrok, 1 arabarra eta beste 9ak gipuzkoarrak. Fandango eta arin arin bana dantzatu beharko

dute dantzariek eta Gipuzkoako Dantzarien Biltzarreko epaileek erabakiko dute zein aritu diren egokien.

Dantza Txapelketa arratsaldeko 17:30etan da Gudarien Plazan. Euria ari badu Sandiusterrin egingo da. □



Saridunak Fagollaga jatetxeen, joan den larunbatean.

### Irrintzi eta Txilibitako museko sariak banatu dituzte

EREÑOTZUN astero jokatzen da musa, ostiral batean Irrintzi tabernan eta hurrengoan Txilibitan, azarotik San Antoniotara. Bi bitara da txapelketa, baina, buruz buru puntuatzen dute lehenengoek eta taberna bakoitzeko lau onenek afaria egiten dute Fagollaga jatetxeen. Irrintziko onenak Patxi Deskarga eta Jone Murugarren izan dira, hirugarren, Ramon Huizi gelditu da eta laugarren Felix Etxenike. Txilibitako onenak ere Patxi Deskarga eta Jone Murugarren izan dira; hirugarren Joxebar Ansa; eta laugarren Ibon Miner. □

**ARALAR TABERNA**  
Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06  
San Joan jai zoriontsuak opa nahi dizkiogu bezero eta hernaniar guztioi.

**APERDERO TABERNA HERNANI**  
Kardaberaz kalea 4, HERNANI 943 33 04 14  
San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu

**IZARRE JATETXEA**  
Pol. Lastaola -Tel.: 943 55 0640- HERNANI (Gipuzkoa)  
San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

**GSE**  
Lan aholkularitza  
Fiskala  
Kontablea  
San Joan onak opa dizkizuegu.  
Tel.: 943 550254  
Faxa: 943 335801  
Atzieta 51 - behe 20120 Hernani

**LEOKA TABERNA**  
Kardaberaz 3, HERNANI  
EUSKAL PRESOA  
EUSKAL HERRIA  
San Joan zoriontsuak opa dizkizuegu



Kalapartako museko sarituak eta elkarteko arduradunak.

### Amancio-Gerri Kalapartako museko txapeldun

XALAPARTA elkarteko mus txapelketa bukatu da. Txapeldun, Amancio-Gerri gelditu dira; bigarren, Iñaki-Martin; hirugarren, Julio-Zumarra; eta laugarren, Kotian-Juanjo. □

<b>ZERBITZUAK</b>	
<b>TELEFONOAK</b>	<b>FARMAZIAK</b>
► Taxiak: 943 550093	► Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077
► Udaltzaingoa: 943 333288	► Gauzez: Iturralde Usurbil. Poligono 13, 9 ☎ 943 363395
► DYA: 943 464622	
► Autobusak: 943 556662	
► Anbulatorioa: 943 006666	
► Jokalari anonimoak: 943 331103	



**ESKERTZA**  
**Paulo Arregi Perurena**

Pauloren familiak eskerrak ematen dizkizuegu egun hauetan gurekin izan zaren guztioi, eta zuen lagunza eta babesera eman diguzuen denoi. Eskarrik asko.

Paulo Arregiren familia

Hernan 2003ko ekainaren 24an

### HERNANIKO UDALA

#### 2003ko SAN JOAN JAIAK

Honen bidez jakinarazten dugu hamalau urtetik beherakoek ezingo dutela 2003ko San Joan jaietan egingo diren sokamuturretan parte hartu. Hala agintzen baitu Zezen Ikuskizun Tradizionalak arautzen dituen uztailaren 20ko 215/1993 Dekretuak.

Hernani, 2003ko ekainaren 17a  
Alkatea

Catalana Occidente  
Aseguruak

Bautista Biurrarena Etxegoien  
Ondo pasa San Joan jaiak.  
Gora San Joan.  
Kardaberaz 40 - behea  
Tel.: 943 332440  
Faxa: 943 556602  
Mobil: 610 292701  
20120 Hernani

**IRUNTXI**  
Ondo pasa  
San Joan  
jaiak  
Taberna  
SAN JOAN  
Kardaberaz 11 - ☎ 943 55 5724

**ZINGI-ZANGA**  
Ondo pasa jaiak.  
Eguneko menuak  
Asteburuan afariak  
Florida 54  
☎ 943 33 03 97

San Joan jai zoriontsuak opar dizkiegu hernaniar eta bisitari guztiei.  
Gora San Joan!  
**HERNANI BIDAIAK**  
hernanib@teleline.es  
Urbieta,6 - 20120 HERNANI  
943 33 00 49 / 943 33 01 74

## TXISTULARI BANDA



Txistulari Banda, Jose Antonio Insausti 'Txobito' zena ere bertan dela.

## Soka luzearen egungo ordezkari

■ Banda 1965ean sortu zen Ansorenatarrek Tilosetan jotzez utzi eta gero ■ Zortzi lagunek osatzen dute gaur egun.

TXISTULARI Banda izan da aurtengo San Joanetako omenduetako bat. Historia luzea du Txistulari Bandak, txistuak Hernanin duen bezalaxe. Sorreña 1966an izan zuen, Banda bere horretan 1980an sortu bazeen ere. Ansorenatarrek Tilosetako bailean jotzeari utzi eta gero. Garai hartan egundoko liskarrak sortzen ziren Tilosetan igandetan, txistulariak jotzen hastean. Musikari bandak jotzen zuen aurretik eta txistulariak igotzean, sueltoan dantza egin nahi ezik edo, jendeak txistuka eta harri txintxarrak boteaz hartzen zituen, kanpotik etortzen zen jendeak gehienbat. Azkanean, orduko txistulariek dimititu egin zuten eta handik urtebetera, Patxi Apezetxea eta Jose Antonio Insausti Txobito

hasi ziren txistulari eta Joakin Apezetxea atabala jotzen. Patxi Apezetxeak berak kontatzen du hasieran izugarritzko jaleoa sortzen zela eta jendeak harri txintxarrak eta pezetak botatzen zizkiela eta txistu zaparrada izugarriak entzuten zitzuela. Herriko jendeak babesten zuen kioskoa eta txistulari berrieik segi jotzen. Gauzak nola diren, poliki-poliki egoerak buelta eman zuen eta orduan, berriz, egundoko estimazioa hartu zuen txistuak igande arratsaldetan. Herriko jendea dantzak hasia zen taldeetan eta igandeko bailean eta baile ostean etenik gabe ibili behar izaten zuten txistulariek jotzen eta plaza betean egiten zuen dantza jendeak.

### Zortzikotea

Gaur egun zortzi lagunek osatzen dute Txistulari Banda: txistu lehenak, Ruth Martin eta Patxi Apezetxea; Txistu bigarrenak, Jesus Mari Gutierrez eta Garbiñe Tijero; silboteak, Ramon Iriarte eta Eba Igarriz; eta atabalak, Joxeba San Sebastian eta Joxeba Aldasoro. Kontzertua ematen dituzte, bai bakarrik eta baita beste musikari eta dantzarietan ere. Beste herrietako txistulariekin ere askotan jotzen dute. Festa eta egun seinalatutako kontzertuez gain, igandero diana jotzen dute herrian, goizeko 09:00etan. Urteko kontzertu nagusietako gaur emango dute, San Joan egunarekin, eguerdiko 12:00etan Udaletxeko arkueetan. □

## BETIOLA-ELIZATXO TXARANGA



Betiola txarangaren lehenengo koadrila, 1953an.

## Berrogeita hamar urtetan Hernaniko kaleak alaitzen

■ Hernanin, txarangarekin kalez kale ateratzen ziren koadrila asko ziren lehen, baina, orain Betiola da geratzen den gutxietako bat ■ San Joan bigarrenean aterako dira aurten.

1953an sortu zen Betiola txaranga, Hernaniko koadrila baten eskutik. Lehenengo urteetan Hernaniko Bandako eta herriko musikariak ibiltzen zitzuten eta Inauterietan, San Joanetan eta beste zenbait festetan ateratzen ziren.

**Elizatzoko elkartetik**  
Betiolaren lehen fasea 1953tik 1978ra artekoa izan zen. Gero, jende askok utzi egin zuen eta Elizatzoko elkartean sartu ziren fundadoreetako batzuk. 1980az gero Betiola-Elizatxo da txa-

ranga eta oraindik ere jarraitzen du San Joan festetan ateratzen. Hasterako sortzaileetik Jose Mari Ezeiza da jarraitzen duen bakarra, 50 urtean etenik gabe.

Hasiera hartan koadrila asko zen musikarien kale ibiltzen zena, baina, poliki-poliki behera egin du ohitura honek. Betiolako kideen hitzetan "gazteek gero eta parranda luzeagoak egiten dituzte eta goizean ez dira txarangarekin saltoka ibiltzeko egoten, lotan baizik". Hala ere, garai txarragoak izan

omen dira eta azken urteetan pixka bat gora egin ote duen diote parte hartzaileek.

### Bihar, egun pasa

Bihar dute egun pasa Betiola-Elizatzokoek. Aurten Altsasuko musikariak dituzte txarangan ibiltzeoak eta koadrila aterako dira Hernaniko kaleetan barrena. Goizean elkartean gosaldu eta ekingo diote kale bueltari. Eguerdian bazkaria dute elkartean eta arratsaldean berriz ere kalez kale ibiliko dira eguna bukatu artean. □

**BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK**  
**Ezkerro**  
Fruituak  
Gora San  
Bertako produktuak  
Fruitu exotikoak  
  
Telefonoz eskatzeko:  
943 33 32 75  
  
Orain helbide berrian gaituzu:  
Antziola 5

**irrintzi**  
taberna  
  
Salda, Pintxo eta ogitartekoak  
Ereñotzu, 3  
Tel.: 943 555 601  
  
Ondo pasa San Joan jaiak!

**AMAIK  
ARRANDEGI**  
ITSASERIA  
FRESKO ETA  
IZOTZUA  
San Joan onak  
opa dizkizuegu!  
  
Kardaberaz 34  
Tel.: 943 55 07 52  
943 55 22 11  
20120 Hernani

Ondo pasa San  
Joan jaiak!  
  
**Gora San Joan  
Gora Hernani**  
  
K/ Nagusia 19  
943 55 23 98  
HERNANI

**LAUTXIMENETA**  
— o k i n d e g i a —  
Tazako txokolatean  
espezialistik  
  
Perkaiztegi 4,  
20120 HERNANI  
(Gipuzkoa)  
  
Jaiak ondo pasa.  
Gora San Joan!

**BIZITZA KALITATE  
HERRIKOI BATEN ALDE**  
  
**Zure erosketak Hernanin**  
  
Hernaniar guztioi San Joan jai  
zoriontsuak opa dizkizuegu  
GORA SAN JOAN!  
  
"BERRIAK" HERNANIKO MERKATARIEN ETA  
OSTALARIENT ELKARTEA

**HERNANIKO  
MERKATARIEN  
TABERNARIEN**  
**BERRIAK**




70eko hamarkadan arraunean ibiliak, berriz ere entrenatzen.

*Arrandegia*  
Mari Fe  
*San Joan onak opa dizkizuegu*



GORA SAN JOAN  
Nagusia 36 943 550 489 Orkola 17 943 552 741

HERNANI



Ogitartekoak eta pintxoak  
Gora San Joan!  
Ezkiaga 5 - HERNANI 943 55 20 07

## Arrauneko lau generaziok estropada, 1978an Elorrabin hildakoen omenez

■ Estropadak ikusten ari zirela zubia erori eta sei lagun hilziren uretan.

AURTEN dira 25 urte Elorribiko ezbeharra pasa zela eta Arraun Elkarteak omenaldi berezia prestatu du biharko. Hernanin trainerua atera zen ezkerro ibilitako generazioak elkarren kontra neurutuko dituzte indarrak. Proba esprinera jokatuko dute, 440 metroko ibilian.

70-80-90 eta 2000ko hamarkadetan arraunean ibilitako arraunlariak izango dira elkarren kontra. Hamarkada bakotzeko partaideek traineru bat aterako dute. Desafioan bertan, traineruak binaka irtengo dira eta irabazleek finala eta galatzaileek 3-4 postuak jokatuko dituzte. Hernanin arraunean ibilitakoak tope ari dira preparatzen, eta Batis Larburu Arraun Elkarteko kideak esan digunez "zaharrenak eta gehiago". Arraunlaririk zaharrena Larburu bera izango da 61 urterekin eta gazteenek 18 bat urte dituzte. Batzuk oraintsu arte arraunean ibilitakoak dira edo dabiltsanak eta beste batzuk, berriz, urte askoan ibili gabekoak.

**100 kiloko media**  
Datu esanguratsua da zaharrenen tripulazioak 100 kiloko media duela gutxi gora behera eta gazteenak ezpala bezala daudela, oraindik ere kirol asko egiten baitute. Entrenatu, ordea, denak entrenatu dira eta aldeak txikiak izango direla diote askok.

Elorrabikoa gertatu zen ez-

■ 11:00etan Meza izango da Elorrabin eta senideei lore es-kaintza egingo zaie.


■ 11:30etan arraun desafioa jokatuko dute, Hernanin arraunean ibilitako 4 generaziok.

keru urtero egin izan da meza San Joan bigarrenean, hildakoen aldeko monolitoan. Bi-har ere 11:00etan meza izango da eta ondorenean lore eskain-tza egingo zaie hildakoen se-nitartekoei eta Kantuz eta Ozenki abesbatzek kantatuko dute.

San Joan bigarrenean, estropadak ikusten ari zirela zubi gaineko jende guztia alde batera egin zuen trainerua ikusteko eta poste bat puskatu, kablea lasatu eta zubia alde hartara bolkatzen. Ondorioz 50 bat lagun uretara erori ziren eta haueitatik 6 hil ziren, 5 hidrokuzioz

eta bestea itota. Orduko hura bizi izan zuen jendeak ez du hango herioa ahaztu, jendea ateratzen egindako ahalegina eta hango estuasuna. Azkenean, ondoko baserritik soka ekarrita eta traineru bat apro-betxatuta jende gehienak ate-ratzea lortu zuen. Hildako sei lagunak Karmele Izeta Pagola, Bautista Izeta Pagola, M<sup>a</sup> Pilar Arrieta Iraola, Sebastian Sagardia, Fernando Estra eta Ignazio Zuloaga Azkue izan ziren.

Horiei egingo zaie ome-naldia bihar, ekainak 25, Elorrabi parean, monolitoa dagoen horretan. □



Batis Larburu eta Jose Mari Irastorza trantze hura pasa zutenetako bi dira. Orduan, arraun Elkarteo arduradun ziren.

**Fono tel:**  
norte

San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

**Euskaltel**

Hautaketa / Seleccion

**Murriztu zure deien kontua**

**Abantailak:**

**1050 aurrezenbakia ez duzu markatu behar**

**Tarifa askoz merkeagoak izango dituzu**

**eta gainera... musika CD bat izango duzu opari**



Banatzale Ofiziala

**Euskaltel**

Kardaberaz kalea 68

Tel.: 943 33 60 25

Faxa: 943 33 50 79

20.120 HERNANI

**AURKJ**  
Eskulana • Arte Ederrak  
Elkano 6 - Tel. 943 55 72 56

**Haizea**  
LABOREAK  
KORTSETEGI - MIHISEDENDA  
Kardaberaz 2 - Tel. 943 55 55 19

SAN JOAN Jai zoriontsuak opa dizkizuegu  
bezzero eta hernaniar guztioi.

**GORA SAN JOAN**